GORABIDE
ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín/aldizkaria
berriak

JUNIO DE 2015 | 2015EKO EKAINA
Nº 241 Zk.

Colabora
Laguntzen du
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Gizarte Ekintza Saila
Departamento de Acción Social

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com | www.gorabide.com
autogestores-gorabide.blogspot.com | tiempolibre-gorabide.blogspot.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide

INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Servicio de ayuda a domicilio
Etxez etxeko laguntza zerbitzua
pg. 4 or.



El Servicio BBK SAIOA Gorabide
BBK SAIOA Gorabide Zerbitzua
pg. 5 or.



Divulgación medioambiental
Ingurumen dibulgazioa
pg. 7 or.



# Nuestro Programa Goratu, en Europa

# Gure Goratu Programa, Europan

## Nueva vivienda en Güeñes, de la mano de la Diputación Foral de Bizkaia (pg. 6)



## Etxebizitza berri bat Güeñesen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik (6 or.)

# Goratu Programa *Europe In Action* congresuan aurkeztu dugu, Erroman

***Conchi Basabe, Gorabideko autogestorea, eta Diana Cabezas, Familiako Esku Hartze arduraduna, izan ziren gure ereduaren gakoak azaldu zituztenak***




Maiatzean, Inclusion Europe erakundeak Europe In Action biltzarra antolatu zuen Erroman, Italiako Anffas elkartearekin batera. Gure Goratu Programa izan zen autogestoreek egin dezaketenaren adibide modura aurkeztutako kasuen arteko bat. Aurkezpena Conchi Basabe autogestoreak egin zuen, Diana Cabezas, Gorabideko Familiako Esku Hartze arduradunaren laguntzarekin.

Conchik deskribatu zuen nolako bizimodua eta parte hartzea dituen Gorabiden, autogestore, boluntario eta zerbitzuen erabiltzaile modura; ondoren azaldu zuen Goratu Programa –la Caixako Gizarte Ekintzak babestuta– zer den: *"adimen desgaitasunari buruz geure ikuspuntutik hitz egiteko elkartzen garen pertsonak gara, eta guretzat zer ondorio dakarren ulertzen lagundu nahi diogu jendeari"*.

### Sorrera eta garapena

Azaldu zuen nola sortu zen programa, nolako prestakuntza eskaintzen duten, norentzat den, nolako tresnak erabiltzen dituzten eta nolako irizpideak erabili zituzten edukiak diseinatzeko. Horrela azaldu zuen: *"Liburuetan ez dagoena eta adimen desgaitasunik ez daukanak kontatu ezin duena kontatzen dugu. Eta lehenengo pertsonan kontatzen dugu, geure esperientzien bitartez"*. Horretaz gain funtsezko lau ideia azaldu zituen: *"Oso desberdinak gara batzuk eta besteak, geure helburuak lortzeko laguntzak behar ditugu, ametsak eta beldurrak ditugu, mundu guztiak bezala; eta harremanak eta esperientziak ditugu, batzuek handi egiten gaituzte beste batzuek txiki"*.

### Helburuak eta emaitzak

Programaren helburuak zehazterakoan, hiru gako aipatu zituen: *"hobeto ezagutu behar gaituzte, beren ideia eta aurreiritziak berraztertu behar dituzte; eta gure ekarpena egin behar diogu gizarteari aniztasunarekin bidezkoagoa izan dadin"*. Emaitzei dagokionez, laburbildu zuen *"1.000 pertsona baino gehiagok hartu dute parte gure informazio saioetan"*. Arlo horretan, Diana Cabezasek kontrapuntu kualitatiboa eskaini zuen, ama baten iritzia, unibertsitateko ikasle batena, desgaitasunik gabeko hezitzaile batena eta Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasle batenak eman zituen.

Amaitzeko, Conchik adierazi zuen Goratu Programak *"poza eta motibazioa"* ematen dizkiola eta hurrengo urratsak aurreratu zuen: laguntza gehiago behar duen jendea sartzea, eduki berriak erabiltzea, komunikabideak eta publizitatea ere helburuen artean jartzea eta onlineko edukiak.

IRAKURKETA ERRAZA

Goratu Programa aurkeztu dugu Erroman egin den topaketan. Conchi Basabe eta Diana Cabezas joan dira. Autogestoreek eta adimen desgaitasuna duten pertsonek egin dezaketen guztiaz hitz egin dute.



**73 autogestorek ohitura osasungarriei buruzko debatea egin zuten Herrialdeen-arteko Hirugarren Topaketan**

GORABIDE berriak boletín/aldizkaria

# Presentamos el Programa Goratu en el congreso *Europe In Action*, en Roma

## *Conchi Basabe, autogestora de Gorabide, y Diana Cabezas, responsable de Intervención Familiar, expusieron las claves de este modelo formativo*



LECTURA FÁCIL

Hemos presentado el Programa Goratu en un encuentro que ha habido en Roma. Han ido Conchi Basabe y Diana Cabezas. Han hablado de todo lo que pueden hacer los autogestores y todas las personas con discapacidad intelectual en general.

En mayo, la organización Inclusion Europe celebró en Roma el congreso anual *Europe In Action* (Europa en acción) coorganizado con la asociación italiana Anffas. Y nuestro Programa Goratu fue uno de los casos que se expusieron como muestra de lo que pueden hacer los autogestores. La presentación corrió a cargo de nuestra autogestora Conchi Basabe, apoyada por Diana Cabezas, responsable de Intervención Familiar de Gorabide.



**73 autogestores de Gorabide y Feaps Cantabria debatieron sobre hábitos saludables en su Tercer Encuentro Interregional**

Conchi describió su forma de vida y su participación en Gorabide como autogestora, voluntaria y usuaria de servicios, antes de centrarse en explicar el Programa Goratu, apoyado por Obra Social la Caixa, como *"un grupo de personas que hablamos sobre nuestra discapacidad intelectual, para ayudar a la gente a entender qué implica para nosotras"*.

### Génesis y desarrollo

Definió el proceso de creación del programa, el modelo de formación que imparten, los públicos a los que se dirigen, las herramientas que utilizan y las decisiones que tomaron para diseñar los contenidos. *"Contamos lo que no está en los libros y que no puede contar nadie que no tenga discapacidad intelectual. Y lo hacemos en primera persona, con nuestras propias experiencias"*, recalcó. Además, detalló cuatro ideas fundamentales: *"Somos muy diferentes unos de otros, necesitamos apoyos para conseguir nuestras metas, tenemos sueños y miedos como todo el mundo y tenemos relaciones y experiencias que nos hacen grandes y otras que nos hacen pequeños"*.

### Objetivos y resultados

Al especificar los objetivos del programa, estableció tres claves: *"que nos conozcan mejor; que revisen sus ideas y, a veces, prejuicios; y aportar nuestro granito de arena a una sociedad más justa con la diversidad"*. En cuanto a resultados, resumió que *"más de 1.000 personas han participado en nuestras sesiones formativas"*. En ese punto, Diana Cabezas ofreció información cualitativa con opiniones de una madre, un estudiante universitario, un formador sin discapacidad y una profesora y un alumno de Primaria.

Para finalizar, Conchi expresó la *"satisfacción y motivación"* que le aporta el Programa Goratu y adelantó los próximos pasos a dar: incluir a personas con más necesidades de apoyo, nuevos contenidos, añadir a profesionales de medios de comunicación y publicidad a su público objetivos o generar contenidos *online*.

información bbk SAIOA Gorabide informazioa

# Servicio de ayuda a domicilio

**Las familias y las personas que tengan dificultades para valerse por sí mismas a la hora de realizar las actividades de la vida diaria pueden solicitar en su ayuntamiento el apoyo de una persona que les preste apoyos en su domicilio, tanto en tareas del hogar (lavar, planchar, limpiar, cocinar, etc.) como en labores de atención personal (ayuda para asearse y vestirse, control de la alimentación, dosificación de la medicación, etc.).**

## Dónde se solicita

En el ayuntamiento del municipio donde está empadronada la persona con discapacidad intelectual. Cada municipio tiene su propia normativa para el acceso, para la gestión y para el cobro del precio público de este servicio.

## Requisitos

- Haber realizado la valoración de la situación de dependencia.
- Tener prescrito este servicio en el PIA (plan individual de apoyos).
- Estar empadronada en el municipio donde se solicita el servicio de asistencia domiciliaria.

Cada municipio puede contemplar, además, situaciones excepcionales, independientemente del grado de dependencia de la persona que solicita el servicio de ayuda a domicilio.

**Desde el Servicio BBK SAIOA GORABIDE, orientamos y acompañamos a las personas con discapacidad intelectual y a sus familias en la gestión de este servicio, a través de la trabajadora social asignada según la zona la en la que vive la persona solicitante.**

# Etxez etxeko laguntza zerbitzua

**Eguneroko zereginak bere kontura egiteko zailtasunak dituzten familia eta pertsonek beren udalari eska diezaiokete etxean laguntzeko pertsona bat izatea, bai etxeko lanetarako (etxea garbitu, lisatu, janaria egin, etab.), bai arreta pertsonalerako (garbitu eta janzteko, janaria kontrolatzeko, medikazioa dosifikatzeko, etab.).**

## Non eskatzen da

Adimen desgaitasuna duen pertsona erroldatuta dagoen udalerrian. Udalerri bakoitzak bere araudia du zerbitzu hori emateko, kudeatzeko eta prezio publikoa kobratzeko.

## Betekizunak

- Mendekotasun egoeraren balorazioa eginda izatea.
- Zerbitzu hori Banakako Laguntza Planean ezarrita izatea.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea.

Udalerri bakoitzean, gainera, egoera bereziak har litezke kontuan, etxez etxeko laguntza zerbitzua eskatu duen pertsonaren mendekotasun gradutik aparte.

**BBK SAIOA GORABIDE zerbitzutik, adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei orientazioa eta laguntza ematen diegu zerbitzu hori kudeatzeko, eskaera egiten duen pertsonaren inguruneko gizarte langilearen bitartez.**

Servicio
BBK SAIOA GORABIDE
Zerbitzua
**Tel. 94 453 90 86**

# El servicio BBK SAIOA GORABIDE ofrece información, orientación y apoyo constante

**El equipo de trabajadoras sociales, psicólogo, psicóloga, psiquiatra y médico rehabilitadora vinculado al servicio BBK SAIOA GORABIDE estudia en profundidad la situación de cada familia y proporciona el asesoramiento y los apoyos más adecuados para cada persona con discapacidad intelectual y su familia, a lo largo de todas las etapas de su vida.**



El servicio BBK SAIOA GORABIDE está formado por las trabajadoras sociales Amaia Sáenz de Ugarte, Arrate Urizarbarrena, Cristina Mendieta, Esther Plaza y Marga Arias; el psicólogo Enrique Aja, la psicóloga Tania Pereda, el psiquiatra José Pérez-Agote, la médico rehabilitadora Blanca Guinea y el director Manuel Martínez. Su cometido es ofrecer acogida y apoyo inicial para determinar los apoyos que precisa cada persona con discapacidad intelectual y su familia; información permanente sobre recursos, servicios, prestaciones, etc.; orientación personalizada sobre las soluciones más apropiadas; y acompañamiento en cualquier cuestión que mejore su calidad de vida. Este servicio se ubica en el Centro Ola BBK de Sondika, cuenta con un despacho de atención en la sede de Gorabide en Bilbao y dispone de asistencia domiciliaria. Se desarrolla gracias al convenio de colaboración con BBK y al apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia.

### Horario y teléfono

El horario de atención es de lunes a jueves, de 8:00 a 17:30 y los viernes, de 8:00 a 15:00, en el número de teléfono 94 453 90 86.

# BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuak informazio, orientazio eta laguntza eskaintzen ditu

**BBK SAIOA Gorabideko gizarte langileak, psikologoak, psikiatrak eta errehabilitazioko medikuak ondo aztertzen dute familia bakoitzaren egoera, eta adimen desgaitasuna duen pertsona bakoitzarentzat eta bere familiarentzat egokiena den aholkularitza eta laguntza eskaintzen dute, bizitzako aro guztietan.**

BBK SAIOA GORABIDEko zerbitzu taldeko kideak Amaia Sáenz de Ugarte, Arrate Urizarbarrena, Cristina Mendieta, Esther Plaza eta Marga Arias gizarte langileak; Enrique Aja eta Tania Pereda psikologoak; José Pérez-Agote psikiatra; Blanca Guinea errehabilitazio medikua eta Manuel Martinez zuzendaria dira. Haien eginkizuna da adimen desgaitasuna duen pertsona bakoitzak eta haren familiak behar dituen laguntzak zeintzuk diren zehazteko, hasierako harrera eta laguntza ematea; baliabide, zerbitzu, prestazio eta abarrei buruzko etengabeko informazioa ematea; irtenbiderik egokienei buruzko orientazio pertsonalizatua egitea eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten kudeaketak egitea. Zerbitzu hori BBK Ola Zentroan dago, Bilboko Gorabideko egoitzan bulego bat du eta etxez etxeko laguntza du. BBKrekin dugun lankidetza hitzarmenari eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker garatzen da.

### Ordutegia eta telefonoa

Astelehenetik ostegunera: 08:00etatik 17:30era. Ostiraletan: 08:00etatik 15:00etara. Telefonoa: 94 453 90 86.

# La apertura de una nueva vivienda en Güeñes fortalece nuestra colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia





La vivienda de nueve plazas abierta en abril en Güeñes, de la mano de la Diputación Foral de Bizkaia, ya ha alcanzado prácticamente su nivel de pleno funcionamiento. Integrada en una zona residencial cercana al casco urbano, ofrece a las personas usuarias un servicio residencial personalizado y adecuado a las necesidades y características del día a día de cada una de ellas.

Este nuevo servicio, gestionado por Gorabide mediante convenio con la Diputación Foral de Bizkaia, procurará que, ante todo, las personas usuarias se sientan como en su propia casa, con apoyo de cinco profesionales de atención directa 16 horas al día, de manera que se generen impactos sensibles en su calidad de vida.

### Características de la vivienda

El inmueble dispone de tres habitaciones dobles y tres individuales, cuatro aseos completos, sala de estar, cocina, comedor, despacho-botiquín y zona de lavandería y almacenaje, en 165 $m^2$. Contará con servicios de limpieza y plancha, comida y lavandería de ropa de hogar.

# Güeñesen etxebizitza berri bateko irekitzeak Foru Aldundiarrekin dugun lankidetza indartzen du

Apirilean Güeñesen Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik irekitako bederatzi plazako etxebizitza jada ia funtzionamendu osoko bere mailara|galgara heldu da. Hirigunetik hurbil dagoen bizitegi batean integraturik dago, erabiltzaileei egoitza zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die, beren beharretara eta eguneroko bizimodura egokitua.

Zerbitzu berri horren bidez, Gorabidek kudeatua Bizkaiko Foru Aldundiarekin duen lankidetzari esker, ahalegina egingo dute erabiltzaileak etxean bezala senti daitezen, horretarako egunean 16 orduko arreta zuzena eskainiko duten bost profesionalen laguntza izango dute, beren bizi kalitatean hobekuntza nabariak izan ditzaten.

### Ezaugarriak

Etxebizitzak hiru logela bikoitz eta hiru indibidual ditu, lau bainugela oso, egongela, sukaldea, jangela, bulego-botikina eta garbiketa eta biltegi gunea, 165 $m^2$. Etxea garbitu, plantxa egin, janaria prestatu eta etxeko arropa garbitzeko zerbitzua izango du kontrataturik.



# La Residencia Plazakola divulga su experiencia medioambiental

Cinco residentes y dos profesionales de la Residencia Plazakola han comenzado a divulgar en el resto de Gorabide las claves de su Proyecto de Medio Ambiente, que está actuando de elemento tractor en la política medioambiental de la asociación. La iniciativa, que consiste en una charla en los otros centros y servicios y una visita de estos a Plazakola, buscan compartir las buenas prácticas en la reducción de la huella ecológica, hábitos de consumo responsable, aprovechamiento de recursos, reutilización y reciclaje de materiales, y recuperación de enseres. Todo ello, desde la perspectiva de participación de las personas usuarias.

LECTURA FÁCIL

Las personas de la Residencia Plazakola van a explicar a otros centros cómo cuidan el medio ambiente. Van a ir contando las actividades que hacen para reutilizar, reciclar o aprovechar cosas.

# Plazakola Egoitzak zabaltzen du bere ingurumen saiakuntza

Plazakola Egoitzako bost erabiltzaile eta bi profesional hasi dira informazioa zabaltzen, beste Gorabideko zentro eta zerbitzuetan, zeintzuk diren beren Ingurumenaren aldeko Proiektuaren gakoak, eta elkartearen ingurumen politikan elementu eragile bihurtu da. Ekimen horretan, beste zentro eta zerbitzu batzuetan hitzaldia ematen dute eta hangoek Plazakolara bisita egiten dute, eta helburua da praktika onak partekatzea aztarna ekologikoa murrizteko, kontsumo arduratsua egiteko, baliabideak ongi aprobetxatzeko, materialak berrerabili eta birziklatzeko eta tresneria berreskuratzeko. Hori guztia erabiltzaileen parte hartzearekin egiten da.

IRAKURKETA ERRAZA

Plazakola Egoitzakoek beste zentro batzuei azalduko diete nola zaintzen duten ingurumena. Berrerabili, birziklatu eta gauzak aprobetxatzeko nolako jarduerak egiten dituzten kontatuko dute.

## LABURRAK BREVES

### Club Diario Bilbao, abierto en julio

Como en años anteriores, el Club Diario de Bilbao permanecerá abierto todo el mes de julio, de lunes a viernes, de 17:30 a 21:00. Las personas con discapacidad intelectual mayores de 18 años interesadas en hacer uso de este servicio, pueden apuntarse, durante el mes de junio, llamando al teléfono 94 443 12 10.

### Bilbo Eguneroko Kluba uztailean

Beste urte batzuetan bezala, Bilboko Eguneroko Kluba zabalik egongo da uztaila osoan, astelehenetik ostiralera, 17:30etak 21:00etara. Adimen desgaitasuna duten 18 urtetik gorakoek, zerbitzu hori erabili nahi badute, izena eman dezakete ekainean, telefono honetara deituta: 94 443 12 10

### Obituario

Desde Gorabide, dedicamos un recuerdo a las personas usuarias que han fallecido recientemente: Francisco Javier Onaindia, usuario de la Residencia Arteagoiti; Emilio Corral, usuario de la Residencia Sopuerta; y José Ignacio García, usuario de la Residencia Ibarreta-Zuloko.

### Heriotza-oharra

Gorabidetik, gogoratu nahi ditugu oraintsu hil diren erabiltzaileak: Francisco Javier Onaindia, Arteagoiti Egoitzako erabiltzailea; Emilio Corral, Sopuerta Egoitzako erabiltzailea; eta José Ignacio García, Ibarreta-Zuloko Egoitzako erabiltzailea.

GORABIDE berriak boletín/aldizkaria

JUNIO DE 2015 | Nº 241 Zk | 2015EKO EKAINA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, con la misión de mejorar su calidad de vida desde un compromiso ético y promoviendo una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, eta helburu du Bizkaian adimen desgaitasuna dutenen eta beren familiartekoen bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso etikoa oinarri hartuta, eta gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa sustatzen. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) entitate sustatzailea.

## LA FOTO ARGAZKIA



**La Residencia Artzentales ha ganado el concurso municipal de carteles sobre la lectura, en categoría adulto**

**Artzentales Egoitzak udaleko irakurketari buruzko kartel lehiaketa irabazi du, nagusien kategorian**

# agenda junio ekaina

## AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

### JÓVENES | GAZTEAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 9 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

### LOS NUEVOS
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 1 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

### LOS VETERANOS
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 4 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:00

### GURE AHOTSA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 17 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

### LOS ELEGANTES
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 4 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:00

### COMISIÓN REDACTORA
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 23 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

## AGRUPACIONES / ELKARTEAK

### BUSTURIALDEA — Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
**Día / Eguna** 10 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

### DEUSTO-SAN IGNACIO — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día / Eguna** 2 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 19:30

### DURANGALDEA — Comisión / Komisio
*Pinondo Etxea. Pza. Pinondo - Durango*
**Día / Eguna** 22 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:30

### ERMUA — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/ etxabe A - Ermua*
**Día / Eguna** 1 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:30

### MUNGIALDEA — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Día / Eguna** 2 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 20:00

### SANTURTZI — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día / Eguna** 24 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 19:00

## FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

### FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 29 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

### FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 29 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

### FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 25 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

### FAMILIAS DE ADULTOS/AS / HELDUETAKO FAMILIAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 25 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

### HERMANOS/AS Y CUÑADOS/AS / ANAI ARREBAK ETA KOINATAK
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 24 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:00

### FAMILIAS DE CHICAS CON S. RETT / RETT DUTEN NESKETAKO FAMILIAK
*Residencia Ola | Ola Egoitza*
*Goietxa bidea, 18 - Sondika*
**Día / Eguna** 20 sábado / larunbata — **Hora / Ordua** 11:00

¡SÍGUENOS! JARRAI IEZAGUZU!

D.L./L.G. BI-394-2014